



IPAR ESKIKO ESKOLA KANPAINAKO BIZIKIDETZA ARAUDIA

1. **APLIKAZIO EREMUA**

Araudiaren aplikazio eremua izanen da Ipar Eskiko Eskola-Kanpainan parte hartzen duten ikasle guztiak.

Zuzendu beharreko portaerak izanen dira bizikidetzarako arauak urratzen dituztenak, Araudi honetan edo 47/2010 Foru Dekretuan jasoak badaude eta betiere kasuotan gertatzen badira:

- a) Kanpainaren jarduerak egin bitartean
- b) Kanpainaren zerbitzu osagarriak erabiltzean: ostatueta, autobusetan, herrian...

2. **NEURRIAK APLIKATZEKO IRIZPIDEAK**

a) Kanpainaren parte-hartzaileekin harremanetan diren langile guztiek, beren agintea erabiltzen dutenean, harremanetarako giro ona erraztu behar dute eta, horregatik, bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren edo bizikidetzaren aurkakoak diren ikasleen portaerei aurrea hartu behar diete, eta ikasleei ohartarazi eta portaera zuzendu Kanpainak antolatutako jarduerak egiten diren bitartean eta beren lan-jardunaren aldiak eta tokian.

b) Zuzendu beharreko portaeretan aplikatu beharreko neurri guztiak egintzen erantzuleak den ikaslearentzat hezigarriak izanen dira. Neurri horiek, gainera, ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatu beharko dute, eta erreferentzia bizikidetza hobetzea izanen da.

c) Neurri horiek aplikatuz gero, ikasle guztiek eta, bidezkoa denean, aita, ama edo legezko ordezkariak eskubidea izanen dute entzunak izateko eta beren burua defendatzeko alegazioak aurkezteko.

d) Nolanahi ere, honako alderdi hauek kontuan hartu beharko dira:

- d.1) Ez da osotasun fisikoaren eta duintasun pertsonalaren kontrako neurririk aplikatuko.
- d.2) Aplikatzen diren neurriak ikaslearen portaerarekin proportzionalak izanen dira.
- d.3) Aplikatzen den neurriarekin batera kalteen konponketa ere ezarriko da, batez ere kalte pertsonalak izan direnean.
- d.4) Edozein hezkuntza neurri aplikatu aurretik, zilegi izanen da ohartarazpena, kargu-hartzea eta zuzentzeko errekerimendua egitea, ahoz eta/edo idatziz, baita portaera desegokiari eta haren ondorioei buruzko gogoeta bat ere.

3. **ERAGINDAKO KALTEAK KONPONTZEA**

Eragindako kalteak konpontzea bizikidetzaren oinarrizko printzipioetako bat izanen da Kanpainak antolatutako jardueren eremuan.

Erantzukizun zibila:

a) Banaka edo taldeka, nahita edo axolagabekeriagatik, Kanpainaren instalazioetan edo materialetan, edo horretan parte hartzen duen edo haren zerbitzura jarduten duen edozein kideren ondasunetan, kalteak eragiten dituzten ikasleak behartuak egonen dira eragindako kaltea konpontzera edo konponketaren kostu ekonomikoa beren gain hartzera, indarreko legedian ezarrita dagoen bezala.

b) Kanpainaren eremuan edo edozein parte-hartzailearen ondasunak lapurtzen dituzten ikasleek lapurtutakoa itzuli beharko dute edo itzulketaren kostu ekonomikoa beren gain hartu.

c) Ikaslea adingabea bada, haren gurasoak edo legezko ordezkariak erantzule zibilak izanen dira, legeetan ezarritakoaren arabera.

4. BIZIKIDETZARAKO BEREZIKI KALTEGARRIAK DIREN EDO BIZIKIDETZAREN AURKAKOAK DIREN PORTAERETAN HEZKUNTZA NEURRIAK APLIKATZEKO PROZEDURA

a) Kanpaina egin bitartean, bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren edo bizikidetzaren aurkakoak diren portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzea Kanpainaren zuzendaritza-koordinazioari eta irakasleei dagokie. Bizikidetzarako bereziki kaltegarria edo bizikidetzaren aurkako den portaera bat kanpainarekin lotutako aldian edo tokian gertatzen bada, langileak (ostalaria, gidaria, begiralea edo eski irakaslea izan) Kanpainaren arduradunei eta irakasleei jakinarazi behar die. Horiek, batera, behar adina ikerketa edo jarduketa egiten ahalko dituzte, eta ahalik eta lasterren izatea saiatuko dira.

b) Ez dago erreklamaziorik aurkezterik administrazio-bidetik bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren edo bizikidetzaren aurkakoak diren portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzaren aurka.

c) Prozedura hasiko da HASIERAKO DOKUMENTUA ikasleari ematearekin batera

d) Eskola-Kanpainaren zuzendaritza-koordinazioak ohiko prozeduraren HASIERAKO DOKUMENTUA egin beharko du, eta honako alderdi hauek jasoko ditu:

- Neurri horiek aplikatzeko eskumena ematen dion araudiaren aipamen zehatza.
- Prozedura irekitzea ekarri duten egintzak eta frogak. Zuzendu beharreko portaera, urratutako arauak, data eta tokia.
- Inplikaturako ikaslea(k).
- Inguruabar astungarrien eta aringarrien azalpena, horrelakorik baldin bada.
- Aplikatu beharreko hezkuntza neurriak, eta horiek hasteko eta amaitzeko egunak.

5. INGURUABAR ARINGARRIAK ETA ASTUNGARRIAK

a) Hezkuntza neurriak aplikatzeko orduan, honako inguruabar hauek aringarritzat har daitezke:

- a.1) Portaera desegokia berez onartzea eta, hala badagokio, kaltea konpontzea.
- a.2) Nahita eginga ez izatea.
- a.3) Barkamena eskatzea.
- a.4) Eragindako kaltea konpentsatzeko zerbait eskaintzea.
- a.5) Lehenagotik hezkuntza neurriak aplikatu ez izana.
- a.6) Hezkuntza premia bereziak diagnostikatuta dituen ikasle bat izatea bizikidetzarako bereziki kaltegarria edo bizikidetzaren aurkako izan den portaeraren erantzulea.

b) Hezkuntza neurriak aplikatzeko orduan, honako inguruabar hauek astungarritzat har daitezke:

- b.1) Premeditazioa.
- b.2) Irakasleei eta Kanpainaren zerbitzura jarduten dutenei kalte egiten dieten portaerak.
- b.3) Ikaskide gazteagoi edo bereziki ahulak diren ikaskideei kalte egiten dieten portaerak.
- b.4) Jaiolekuagatik, sexuagatik, arrazagatik, sinesmen ideologiko edo erlijiosoengatik, desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialagatik edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozialengatik bereizkeria dakarten ekintzak.
- b.5) Kanpainan parte hartzen duten eta haren zerbitzura jarduten duten gainerako pertsonen eskubideak urratzen dituzten jarduketak taldeka egitera bultzatzea edo animatzea.

- b.6) Bizikidetzarako bereziki kaltegarria den edozein jarduketaren publizitatea egitea.
- b.7) Zuzendu beharreko edozein portaera grabatzea eta/edo hedatzea.

6. BIZIKIDETZAREN AURKAKO PORTAERAK

Tipifikazioa

ORO HAR, BIZIKIDETZAREN AURKAKO PORTAERAK DIRA IPAR ESKIKO ESKOLA-KANPAINAREN OHIKO GARAPENARI ERAGITEN DIOTENAK. NOLANAHI ERE, HONAKO HAUEK HARTUKO DIRA BIZIKIDETZAREN AURKAKO PORTAERATZAT:

- 1) Pertsonen duintasunaren eta legez ezarritako eskubide demokratikoen aurkako adierazpen berariazkoak egitea eta Kanpainan jarduten duen edozein pertsona desagoki eta errespetu gabe tratatzea:
 - a) Kanpainan jarduten duten pertsonen eta kideen lana eta ekarpenak mespretxatzea
 - b) Kanpainan parte hartzen duen edozein pertsonari adierazpen eskubidea erabiltzea eta bizikidetzaren aurkako portaera bat jakinaraztea eragozteko edo eragozten saiatzea, batez ere eskola-jazarpenarekin edo genero indarkeriarekin lotuta badago.
 - c) Ikaskideak edo beste ikastetxeren bateko ikasleak errespetu gabe tratatzea.
 - d) Kanpainan parte hartzen duen edozein kide edo pertsonaren aurka errespetu falta diren hitzak eta keinuak egitea.
 - e) Kanpainan parte hartzen duen edozein pertsona mehatxatzea.
 - f) Genero berdintasunaz, arrazaz, kulturaz, hizkuntza-ereduaz eta sinesmen erlijiosoez errespetu gabe eta hizkera iraingarriaz tratatzea.
 - g) Kanpainan parte hartzen duen edozein pertsonaren aurka iruzkin iraingarriak egitea
 - h) Kanpainan elkarrekin bizi diren sinesmen erlijioso, kultura, hizkuntza eta hizkuntza-ereduen aurka propaganda iraingarria egitea edo hedatzea.
- 2) Irakaslearen eta Kanpainan jarduten duten langileen agintearen aurkako errespetu faltak.
- 3) Kanpainan debekatuta dauden gailuak eta ekipoak izatea edo erabiltzea:
 - a) Kanpainaren jardueretan sakelako telefonoa izatea eta erabiltzea
 - b) Kanpainaren jardueretan MP3-4 izatea eta erabiltzea
 - c) Arriskugarriak izan daitezkeen tresnak edo objektuak (txiskeroak, ziriak...) erabiltzea eta erabiltzera bultzatzea.
- 4) Kanpainaren instalazio edo materialetan, ostatueta, autobusetan edo bisitatzeko diren lekuetako ondasun edo instalazioetan kalte arinak nahita egitea, baita Kanpainan parte hartzen duen edozein pertsonaren gauzetan:
 - a) Kanpainaren instalazio edo materialetan kalte arinak egitea, nahita edo behar bezala ez erabiltzeagatik
 - b) Ostatueta, autobusetan eta Kanpainaren jardueretan kalte arinak egitea, nahita edo behar bezala ez erabiltzeagatik
 - c) Kanpainan parte hartzen duen edozein pertsonaren ondasunetan edo materialetan kalte arinak egitea, nahita zein behar bezala ez erabiltzeagatik
- 5) Kanpainaren instalazioen, ekipamenduaren, materialen eta inguruen garbiketa oztopatzea, baita ostatuena, autobusetan, bisitatzeko diren lekuen edo Kanpainan parte hartzen duen edozein pertsonaren gauzena ere:
 - a) Kanpainaren instalazioak eta materialak zikintzea, nahita zein axolagabekeriagatik

- b) Ostatuak, autobusak eta Kanpainaren jarduerak egiten diren inguruak zikintzea, nahita zein axolagabekeriagatik.
 - c) Kanpainan parte hartzen duen edozein pertsonaren ondasunak edo materialak zikintzea, nahita zein axolagabekeriagatik.
- 6) Irakasleek zein Kanpainan jarduten duten langileek agindutako COVID-aren kontrolerako prebentzio eta garbiketa neurriak ez betetzea.

Hezkuntza neurriak

Bizikidetzaren aurkako portaeretan aplikatu beharreko hezkuntza neurriak honako hauek dira:

- 1) Ostatuei eta autobusei dagokienez, ikasleak horiekin lotutako lanen bat egin beharko du: aldi zehatz batean garbitzea...
- 2) Kanpainan parte hartzeko eskubidea etetea aldi zehatz baterako.
- 3) Baloreetan hezteari buruzko lan bat egitea.
- 4) Debekatuta dagoen materiala edo objektua kentzea.
- 5) Kaltetutako materiala ordaintzea edo ordezkatzeta.
- 6) Konponketa ordaintzea (ahal bada, ikaslearen diruaz).
- 7) Egindako kaltea jarduera bat egin bitartean gertatu bada, jardueraren batean parte hartzeko eskubidea etetea aldi zehatz baterako.
- 8) Aisialdian lanak egitea ikaslearen ekintza zuzentzeko edo konpontzeko.
- 9) Aisialdian garbitze-lan zehatzak egitea ikaslearen ekintza zuzentzeko edo konpontzeko.

7. BIZIKIDETZARAKO BEREZIKI KALTEGARRIAK DIREN PORTAERAK

ORO HAR, BIZIKIDETZARAKO BEREZIKI KALTEGARRIAK DIREN PORTAERAK DIRA IPAR ESKIKO ESKOLA-KANPAINAREN OHIKO GARAPENARI LARRI ERAGITEN DIOTENAK. NOLANAHI ERE, HONAKO HAUEK HARTUKO DIRA BIZIKIDETZARAKO BEREZIKI KALTEGARRIAK DIREN PORTAERATZAT:

1) Irakasleen edo haren agintearen aurkako eta Kanpainan jarduten duten langileen eta parte hartzen duten kideen aurkako irainak, kalumniak, ofentsak, isekak edo umiliazioak, haien aurkako indarkeria fisikoa edo bestelakoa eta, halaber, haienganako jazarpen eta hitzezko edo egitezko jokabideak, bereziki alderdi sexista, arrazakeriazkoa edo xenofoboa badute edo pertsonen sinesmen edo konbentzimendu moralen aurkakoak badira, edo dituzten ezaugarri pertsonalen, ekonomikoen, sozialen edo hezkuntzakoengatik ahulenak diren pertsonen aurka egiten badira:

- a) Kanpainan parte hartzen duen edozein pertsonaren aurkako irainak, kalumniak, ofentsak, isekak edo umiliazioak; keinuz, irudiz zein idatziz.
 - b) Kanpainan parte hartzen duen edozein pertsonaren aurkako mehatxuak, hitzez, keinuz, irudiz zein idatziz.
 - c) Kanpainan parte hartzen duen edozein pertsona kolpatzea edo bortxa fisikoa erabiltzea.
 - d) Kanpainan parte hartzen duen edozein pertsona jazartzea.
- 2) Kanpainan parte hartzen duten pertsonen bizitza pribatuarekin zerikusia duen edozein irudi, elkarrizketa edo soinu grabatzea.
- 3) Kanpainan parte hartzen duten pertsonen bizitza pribatuarekin zerikusia duen edozein irudi, elkarrizketa edo soinu hedatzea, baliabide elektronikoen bidez edo beste baliabide batzuen bidez.

- 4) Kanpainaren instalazio edo materialetan, ostatuetan, autobusetan edo bisitatzan diren lekuetako ondasun edo instalazioetan kalte larriak nahita egitea, baita Kanpainan parte hartzen duen edozein kideren gauzetan.
- 5) Asmo txarrez eginak izateagatik, Kanpainaren zerbitzura jarduten duen edo parte hartzen duen edozein pertsonaren osotasun fisikoarentzat arriskugarriak izan daitezkeen portaerak.
- 6) Kanpainaren arduradunei eta irakasleei gezurrak esatea edo informazio faltsua nahita ematea, horrek Kanpainaren zerbitzura jarduten duen edo parte hartzen duen pertsonaren bati kalte larria eragiten badio.
- 7) Kanpainaren zerbitzura jarduten duen edo parte hartzen duen edozein pertsonaren gauzak lapurtzea.
- 8) Bizikidetzarako bereziki kaltegarria den portaera baten jakitun edo lekuko izatea eta Kanpainaren arduradunei eta irakasleei ez jakinaraztea, mehatxupearan edo presiopearan ez badago:
- 9) Obedientzia ukatzeko portaerak, bereziki ezarritako hezkuntza neurriak betetzen ez direnean.
 - a) Kanpainaren jardueretako arduradunen eta irakasleen aginduei muzin egitea.
 - b) Bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren edo bizikidetzaren aurkakoak diren portaerak zuzentzeko ezarritako hezkuntza neurria ez betetzea
- 10) Konstituzioan jasotako eskubide eta askatasunen aurkakoak diren edo terrorismoaren apologiatzat hartzen diren pintaketak edo idatzizko beste adierazpen batzuk egitea.
- 11) Tabakoa erretzea, edari alkoholodunak edatea edo drogak kontsumitzea edo/eta banatzea, Kanpainan parte hartzen duen egunetan:
 - a) Tabakoa erretzea edo hori egitera bultzatzea.
 - b) Edari alkoholodunak edatea edo hori egitera bultzatzea
 - c) Drogak kontsumitzea edo/eta banatzea edo hori egitera bultzatzea.
- 12) Bizikidetzaren aurkako portaerak behin eta berriz hartzea.
- 13) Kanpainaren jardueren ohiko garapena zuzenean galaraztera bideratutako edozein egintza edo jokabide oker.

Hezkuntza neurriak

BIZIKIDETZARAKO BEREZIKI KALTEGARRIAK DIREN PORTAERETAN aplikatu beharreko hezkuntza neurriak:

- 1) Ostatuetan, autobusetan, bisitatu diren lekuetako instalazioetan eta ondasunetan edo Kanpainan parte hartzen duten pertsonen gauzetan eragindako kaltea konpontzea. Eskola-Kanpainaren zuzendaritza-koordinazioak kalteen balioa eginen du eta hori kobratzea kudeatuko du.
- 2) Kalte moralak konpontzea
- 3) Eskola-Kanpainaren jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea
- 4) Ikaslea edo taldea etxera bidaltzea. Eskola-Kanpainaren zuzendaritza harremanetan jarriko da legezko ordezkariekin ikaslearen bila etor daitezzen.

BIZIKIDETZAREN AURKAKO PORTAERAREN ESPEDIENTEA

HASIERAKO DOKUMENTUA

Behar den informazioa bildu ondoren, Ixabako Ipar Eskiko Eskola-kanpainaren zuzendariak eta koordinatzaileak erabaki dute espediente irekitzea ondoko ikasleari, ustez Bizikidetzaren aurkako portaera izanagatik:

.....

INDARREAN DEN ARAUDIA

Ipar Eskiko Eskola-Kanpainaren bizikidetza araudiak zehazten ditu Bizikidetzaren aurkako portaerak, eta hartu beharreko neurriak arautzen ditu.

Zerbitzuaren arduraduna (ostatua, garraioa, eski jarduera, arratsaldeko jarduera):

.....

Irakaslea:

Espedientea irekitzea arrazoitu duten egintzak eta urratutako araua

Eguna: Ordua: Ikaslea:

.....

.....

Egintza horiek Bizikidetzaren araudiko arau bat urratzen dute:

Proposatutako hezkuntza neurriak

- Kalte materialak konpontzea:
- Kalte moralak konpontzea:
- Debekatuta dagoen materiala edo objektua kentzea:
- Lanak:
- Jardueran parte hartzeko eskubidea etetea:

Izaban, 20..... (e)koaren (e)an.

Zuzendaria: Koordinatzailea:

Irakaslea:.....

BIZIKIDETZAREN AURKAKO PORTAERAREN ESPEDIENTEA

HARTU-AGIRIA

Aita/Ama/Legezko ordezkariaren izen-deiturak:

.....

Egintzez eta proposatutako neurriez jakitun geratu naiz.

..... (n), 20.....(e)koaren(e)an.

Sin.:

BIZIKIDETZAREN AURKAKO PORTAERAREN ESPEDIENTEA

HARTU-AGIRIA

Ikaslearen Ikastetxeko zuzendariaren izen-deiturak:

.....

Egintzez eta proposatutako neurriez jakitun geratu naiz.

..... (n), 20.....(e)koaren(e)an.

Sin.:

BIZIKIDETZARAKO BEREZIKI KALTEGARRIA DEN PORTAERAREN ESPEDIENTEA

HASIERAKO DOKUMENTUA

Behar den informazioa bildu ondoren, Iزابako Ipar Eskiko Eskola-Kanpainaren zuzendaritza-koordinazioak erabaki du ondoko ikasleari espediente irekitzea, ustez Bizikidetzarako bereziki kaltegarria den portaera izanagatik:

.....

INDARREAN DEN ARAUDIA

Ipar Eskiko Eskola-Kanpainaren bizikidetza araudiak zehazten ditu Bizikidetzaren aurkako portaerak, eta hartu beharreko neurriak arautzen ditu.

Zerbitzuaren arduraduna (ostatua, garraioa, eski jarduera, arratsaldeko jarduera):

.....

Irakaslea:

Espedientea irekitzea arrazoitu duten egintzak eta urratutako araua

Eguna: Ordua: Ikaslea:

.....

.....

Egintza horiek Bizikidetzaren araudiko arau bat urratzen dute:

Proposatutako hezkuntza neurriak

- Kalte materialak konpontzea:
- Kalte moralak konpontze:
- Lanak:
- Kanpainan parte hartzeko eskubidea etetea:
- Ipar Eskiko Eskola-Kanpainatik botatzea:

Izaban, 20.....(e)koaren(e)an.

Zuzendaria: Koordinatzailea:

Irakaslea:

BIZIKIDETZARAKO BEREZIKI KALTEGARRIA DEN PORTAERAREN ESPEDIENTEA

HARTU-AGIRIA

Aita/Ama/Legezko ordezkariaren izen-deiturak:

.....

Egintzez eta proposatutako neurriez jakitun geratu naiz.

Izaban, 20.....(e)koaren(e)an.

Sin.:

BIZIKIDETZARAKO BEREZIKI KALTEGARRIA DEN PORTAERAREN ESPEDIENTEA

HARTU-AGIRIA

Ikaslearen Ikastetxeko zuzendariaren izen-deiturak:

.....

Egintzez eta proposatutako neurriez jakitun geratu naiz.

Izaban, 20.....(e)koaren(e)an.

Sin.: